

Hausnarketa berez izanik aberasgarria, gaia edozein dela ere, hezkuntzaren inguruko gogoeta egitea are ariketa baliotsuagoa gertatzen da. Lerro hauek idazten hastean, eskerrak eman nahi nizkioke Hermes aldizkariari tarte hau hezkuntzari eskaintzeagatik, eztabaida eta irizti aniztasuna sustatuz horrela. Jakina denez, hezkuntza arloari buruzko nire ikuspegia gizartearen zati batek partekatuko du, baina ez osoak. Hor datza, hain zuzen ere, ideiak kontrastatzearen balioa.

Hezkuntza pandemiaren eragin zuzena pairatzen ari dela uste dutenentzat, lehen mezua: ez gaitzen geratu begi-bistakoa denarekin, harago begiratu beharra dago. Covidek indartsuago egin gaitu, ez izan inolako zalantzarik; aldaketen aurrean egokitzten badakigula erakutsi digu, erronkarik zailenak talde-lanean gainditzen direla gogorarazi digu... eta, batez ere, gizarte hau harro sentiaraziko duen hezkuntza-sistema bat dugula.

Lerro hauek pandemiatik eta sortzen ari zaigun sufrimendutik

aldentzea nahi nuke, eta aurrean dugun etorkizunean zentratzea, baina beharrezkoa da, halaber, hezkuntza-komunitate oso baten ahalegina aitortzea eta balioestea. Zuzendaritza-taldeen eta irakasleen Inplikaziorik gabe, haien konpromisorik gabe, ezinezkoa zatekeen hau guztia. Gure ikasleen erantzukizunik gabe, familien babesik eta ulermenik gabe, kimera hutsa izango zatekeen. Milaka borondateren batura gara.

Baina aurrera begiratu beharra dugu. Egindako lan izugarriak komunitate gisa indartu egin gaitu, eta beharrezkoa da unea aprobeztatzen jakitea. Kontra genuen haizea aldeko haize bihurtu dugu.

Etorkizuna geurea da, norantz goazen ondo dakigulako. Gure hezkuntza-sistemaren zutabeek tinko jarraitu behar dute, hain oinarrikoa izanik, noizbehinka gogora ekartzea komeni den kontzeptu batean: ekitatean. Gure katebegirik ahulena bezain indartsuak gara. Neska-mutil bakoitzak gure laguntza osoa jaso behar du bere potentziala ahalik eta gehien aprobeztatzeko, helduaroan bizitza ahalik eta berme handienekin garatu ahal izan dezaten. Gure gizarteak, gero eta pluralagoa eta anitzagoa den gizarteak, hezkuntza-sistema gure indarguneak eta ahulguneak identifikatzeko gai

dela sentitu behar du, geure bikaintasun propioa erdiesteko. Testuinguru horretan kokatzen ditut, eduki eta irizpide pedagogikoez gain, funtsezko zerbitzuak ere, hala nola jantokia edo garraioa, eta Eusko Jaurlaritzak beketan eta laguntzetan egiten duen ahalegina, 100 milioi eurotik gora urtero. Euskadin, hezkuntza ekitatiboa izateaz arduratzen gara, letra larriz idatzita.

Aniztasunari eta kulturartekotasunari erantzuna emango dioten hezkuntza-kalitatea, gizarte-koheresia edo desberdintasunen aurkako eginahala. Horra hor, gure gizarteak eskatzen dizkigun lehentasunak, eta guk geure egiten ditugunak. Hezkuntza-sistemak, gainera, erronka globalei ere erantzutea eskatzen digu: erronka demografiko eta sozialari, ekologiko eta energetikoari, teknologiko eta digitalari. Azken horri dagokionez, begi-bistakoa da pandemiak lehentasun berri bat utzi digula agerian: gure hezkuntza-sistemaren digitalizazioari bultzada ematea. Ildo horretan, ezin diegu ihes egiten utzi “Next Generation EU” berreskurapenerako tresnak Europatik eskaintzen dizkigun aukerei. Horri lotuta, asmo handiko planteamendu bat egin dugu “Euskadi Next” programaren barruan: 200 milioi euro mobilizatuko ditugu datozen 4 urteetan. Gure hezkuntza-sistema Europako eskualdeen abangoardian jarriko du iraultza horrek. Asmo handiko izan behar dugu.

Dena den, aurrerapen teknologikorik bizkorrenek, azken belaunaldiko ordenagailuek, ez lukete ezertarako balio izango, haiek garatuko dituen talde bat atzean ez balute. Hezkuntza-sistema aurreratuak lidergo sendoak behar ditu, ondo prestatuak eta ikastetxearen kudeaketarako autonomia dutenak. Zuzendaritza-taldeek administrazioaren erabateko babesa izan behar dute, baina baita gizarte guztiarena ere. Prestakuntza ona erabakigarria izango da, bai zuzendaritza-taldeentzat, bai irakasleentzat, gure gizartearen behar eta errealitatei erantzungo dien hezkuntza-sistema garatu nahi badugu. Eta hor denok dugu zeresana; egiten duten lanaren garrantzia aitortu behar

diegu. Zuzendari edo irakasle izateak prestigio handiagoa izan behar luke gizartean. Badakit pertzepzioak ez direla aldatzen egun batetik bestera, baina egunero egiten duten lanaren garrantzia azpimarratu behar da: gure seme-alaba guztien heziketa, alajaina.

Benetan sinisten dut hezkuntzak Euskadin azken 40 urteotan egin duen ibilbidean. Gure sistema eguneratzen eta hobetzen asmatu dugu, aurrez eginiko lana oinarrian hartuta. Eta horrela jarraitu behar dugu. Zentzu horretan, gure hezkuntza eguneratzeko unea iritsi dela uste dut.

1993ko urtarrilaren 13an Euskal Eskola Publikoaren Legea onartu genuenetik, aldaketa sakonak ezagutu ditu gizarteak, horietako asko nekez imajina zitezkeenak zenbait urte lehenago. Gizarte-aniztasunak edo teknologia zein metodologia pedagogiko berriak agertzeak, gure araudiak egokitzea eskatzen dute. Gure hezkuntza-esparrua eguneratu behar dugu, gure potentzialtasun guztia aprobetxatu ahal izateko. Eta lan hori guztioi dagokigu.

Hezkuntzari esan izan dugun garrantzia ematen badiogu benetan, ez dago aitzakiarik. Jakin badakit pertsona bakoitzak bere ikuspegia duela, talde edo alderdi politiko bakoitzak hezkuntzaren inguruko ikuskera jakin bat defendatzen duela, baina ziur nago ikuspuntuak elkarren osagarri izan daitezkeela. Zoru komun bat eraikitzeke gai izan behar dugu, bat gatozen gaietan oinarritu eta desadostasunetan lan egin, gure hezkuntza-sistema indartuta ateratzea lortzeko. Sailburu kargua hartu nuenetik, behar hori bistaratu nahi izan dut akronimo honen bidez: HH, Hezkuntza Hitzarmena, hezkuntzaren inguruko akordio bat.

Garrantzitsuegia da hezkuntza nor bere lubakietan geratu eta ikasleen kaltean aritzeko. Erantzukizunez, elkarlanean eta hainbeste lagunen esperientzian oinarrituta, datozen 30 urteetarako Euskadiko hezkuntza diseinatu eta bultzatzea dagokigu. Baikorra naiz, asko dugu jokoan.